

## IKUSPUNTU POLITIKOA

Duela egun gutiko gertaera da. Bulegorako langilea hautatu behar zela eta, eztabaidan ari ziren Udalbazkideak: prestakuntza tekniko hobea zuelako hautagai baten alde agertzen ziren batzuk. Euskaraz ez jakiteak, ordea, zerbitzu publikorako eze-goki bihurtzen zuela zioten bertzeek. Ez zen inolako adostasunik igertzen.

Halako batean, euskara jakitea beharrezko jotzen ez zuenak, argudio berria mahairatu zuen: "hori politika da". Zera, alegia, euskararen alde sendo jokatzeko jokabide politikoa zela.

"Politiko" hitzaren erranahia, horrelakoetan, ez da, noski, kutsu onegarrikoa izaten; ez da polis edo gizarteari dagokion erranahaia, ez, alderdi politiko jakin bati dagokiona baizik. Erran nahi baita, batzuen ikuspuntura mugatua dela denen ikuspuntuetara zabalik egon behar duena. Batzuen gomenentzietara makurtu dela guzien ondasuna dena.

Dena den, herri bateko udaletxean gertatutako hori ez da lehenbizikoa, eta ez da azkenekoa ere izanen, seguraski. Gainera, behin eta leku batean gertatua balitz, gaitzerdi. Baina Udaletxean ikusitakoa, Legebiltzarrean ere ikusten dugu, baita Elizan ere, eta lagun artean.

Errate baterako, Elizan euskarari ematen zaion baino aukera eta leku haundiagoa zor zaiola agertu dugularik, aipatutako argudioa entzun dugu elizako arduradunengandik apezpiku eta bere ordezkariengandik: euskararen alde hainbertze saiatzea eta nahi izatea ikuspuntu politikoaren ondorioa dela. Horrela euskararen aldeko argudioak balio gabetu nahi dira, noski, eta euskaldunok pairatzen dugun zapalkuntza egoera legeztatu eta zintzotu.

Behar bada, batzuetan eliztarren jokabidea, arduradunena batez ere, zuritu eta zintzotu nahiak bultzatzen ditu horrela mintzatera. Baina, asmoak alde batera, horrela egiaz euskal kulturaren eta Euskal Herriaren zapalkuntza finkatu eta areagotu bertzerik ez da egiten.

Bertzalde, ikuspuntu ahalik eta zabalenetik aritzea desegokitzat jotzen ez badut ere, halako zalantza sortzen zait nire barnean: euskararekiko alderdikeriazko ikuspuntu mugatua salatzen duten horiek, "politiko" solasa erabiliz, zinezko kezka eta beldurra ote diote ikuspuntu horri?

Galdera hau ahainbat gertaera eta jokabidek sortzen digutena da. Nafarroa eta Euskal Elkarte Autonomoko lehendakariaren hitzak ditugu honako hauek: "Euskara ideologia guzien gainetik dago". Baina UPNk ofizialtasuna Nafarroa osora zabaltzea oztopatu duenean, eskoletan euskarazko irakaskuntza egin ahal izateari ezezkua eman dionean, administrazio euskararen erabilerarako dekretua aldatu eta txartu duenean, ideologiaren gainetik jokatu du?

Galdera bera egin dezakegu Hego Euskal Herriko apezpikuek argitaratu duten ondarreko idazkiak. Ruandarako laguntza eske aurkeztu zaizkigu Euskal Elkarte Autonomoko hiru apezpikuak batera. Ruandarako laguntza eske aurkeztu zaigu Nafarroako artzapepizkua ere, bera bakarrik. Zergatik EAEko hiru apezpikuak batera eta ez bakarka? Zergatik hiruak alde batetik eta Iruñekoa bertzetik bereiz? Zergatik ez Iruñekoa eta Donostiakoa alde batetik, eliz eremu eta probintzia berekoak, eta Gasteizkoa eta Bilbokoa bertzetik? Zergatik...?

Politika jakin baten ondorioz, ordea, Euskal Elkarte Autonomoa entitate berezia da, Nafarroak bere izaera propioa duen bezala, hau ere ikuspuntu politikoak eragina. Hara, ba, apezpikuen jokaerak zenbait alderdi politikoren argudioei egokitua dirudi. Ez diote, ordea, ikuspuntu politikoek ez dutela elizan eragin behar, goian erran dugunaren arabera?

Eta hainbat gauza. Nork ez du gogoan orain dela 18 urte Nafarroako Apez Batzarrak onetsitako hura: Hego Euskal Herriko elizbarrutiak eliz eremu edo probintzi egokiagoan antola zitezela. Espainiako apezpiku Elkarteak ere onartu omen zuen. Bertze hau ere onetsi eta gomendatu zuen apez Batzarrak: harremanak ugaritu eta sendotu zitezela lau elizbarrutietako maila eta esparru guzietan.

Urteak joan dira eta lau elizbarrutiak ez dira oraindik eremu batera bildu, ez da inolako berrantolaketarik gauzatu. Iruñeak Jakarekin jarraitzen du eliz probintzia osotzen, eta Gasteiz eta Bilbok Burgosekin, Donostia eta Iruñetik berezirik. Hain zuzen ere, Frankoren denboran erabaki zen bezala, diktaduraren iritzi eta arrazoi politikoek elizako erabaki aunitz baldintzaten zizutela inork zalantzan jartzen ez duen denbora deitoragarri hartan bezala.

Nork sinesten ahal du ez dela gaur ere ikuspuntu politikoa egoera hori mantentzearen eragilea? Ez dakit zenbateraino ohartzen diren Euskal Herriko Elizako arduradunak, ikuspuntu politiko horien meneko izanez, zuzengabeko egoeraren defendatzaile bihurtu direla.

*Pello Apezetxea*